# pradan gaindi

*Par Txillardegi*

Prada de Conflent, Universitat Catalana d'Estiu, Franco-ren garaian sortutako "unibertsitate nazionala"... Amets liluragarria ! Eta handik 4 urtetara, Baionan, Uztaritzen, Donibanen, gure U.E.U. apala sortu zen, Prada-ko eredua aurrean genuelarik. Gero gu Hegoaldera aldatu ginen, Irunera. U.C.E. delakoa, aldiz, hantxe gelditu zen, Ipar-Katalunan ; Katalunako arazoa **espainiar Estatutik at ere** gertatzen dela garbiki adierazteko. Eta ez omen zaie damutzen : **Rossello ere Catalunya da.**

Egia aitortzeko, ez nintzen han sekula partaide izan. Eta arrazoinen artean hauxe datorkit burura : ez dakit katalaneraz. Eta U.C.E.an **dena** egiten da hizkuntza nazionalaz.

Aurtengo saioak Abuztuaren 17-tik 26-ra iraun du ; eta 750 bat ikaslek hartu dute parte. Giroa oso Larraonaren antzekoa ; eta kaleko ekintzek ere, Pradan bertan, ikasleen ahotsa helerazten dute inguru hartan. Prada ondoko Villafranca de Conflent-eko egoitza, zinez ederra ; hiriaren harresi zaharra osorik baitago.

Aitortu dizuedanez, ohore handitzat hartu nuen han mintzatzeko aukera. Baina katalaneraz ez jakinik ?... Frantsesez hitz egitea gaitzi zitzaien : bertako lege-erdara frantsesa da hain xuxen. Gaztelaniaz egitea, berriz, Donostian frantsesez egitea bezalaxe. Eta euskaraz egin nuen, Carod-Rovirak berak nire hitzak katalanerara, aldi-berean, itzultzen zituelarik. 200 bat entzule, eta txaloa franko. Ez nuen besterik behar pozik irteteko.

U.C.E.ak Unibertsitate "normala" izan nahi du, "garaikidea" ("contemporania", katalaneraz), eta "anizkuna" ("plural"). Lehendakaria den Enric Cassasas i Miro-ren hitzez esateko, "Un poble o un pais determinat no és pas més o menys obert, més o menys solidari que un altre : tots son iguals i a tot arreu hi ha gent de tot...L'ùnica cosa que, en el nostre cas, impedeix aquesta igualtat amb altres paysos o pobles és que tenim l'inconvenient de dependre d'altres estats nopropis, **és a dir impropis**". Gauzak garbi !

Gero Katalunako telebistarentzat hitz egin nuen, Unibertsitateko Lehendakari-orde eta Esquerra Republicana-ko Bozeramailea den Carod-Rovirarekin. Eta honek hitz ezin gogorragoak izan zituen U.C.E.ren kontra ari diren guztiekiko : "Ez du Pradako U.C.E. honek - esan du gutxi gora-behera - bere burua justifikatu behar. U.C.E. hau katalanera hutsez ari da, normala denez ; gure naziohizkuntza katalanera delako. Beste Unibertsitateek, hain zuzen, oraindik ere gaztelania erabiltzen duten horietxek, beharko dute azaldu zergatik ez diren oraindik katalandartu".

U.C.E.ak bete-betean dauka Kataluna **osoa** lurraldetzat ; eta aurtengo mapan (Pradara nola joan daitekeen azaltzeko, eta gainerakoak) batere berezkuntzarik gabe ageri dira Puigcerdà, Figueres, Camprodon, Prada eta Perpinyà. "Inperioa"ren mugari, jaramonik ez. Eta laguntzaileen artean, besteak beste, Paisos Catalanes delakoetako sei Unibertsitateak aipatzen dira, Perpinyà-koa barne. Ramon Gual irakasleak, bide beretik, batera daramatza Rossello-ren ordezkaritza eta "Coneixement de la Catalunya del Nord" saila.

Esaldi mingarri bat entzun diot halako batez hango irakasle bati : "Los catalanes solo utilizamos el castellano cuando hablamos con vascos"...Eta gogoan hartu dut.

Neure hitzaldiaz, zer esango ? Badakizue : **lurraldetasuna lortuko ez dueno, euskarak ez du soluziorik**. Eta Konstituzio **hauen** barruan (Ipar eta Hegoaldeetan, alegia) **jai dugu**. Hamaika aldiz esandakoa, beraz.

Kasetari batek, halere, ez du dena ongi ulertu. Eta nire esanen artean horrelakorik balego bezala, hau agertu da biharamonean Perpinyà-ko "L'Indépendant" delakoan : "Euskal Telebista, la télévision basque, a dû créer une seconde chaîne en espagnol **pour sauver au moins la culture**" (RDP sinaturik, 1989-8-18an).

Hots, nire irakurleek aisa sinetsiko dutenez, ez nuen nik horrelakorik esan ; ez baitut nik ulertzen hizkuntzarik gabeko "kultura" hori zer izan daitekeen. Frantsesez argituko dut : "On va monter une chaîne de télévision en allemand, **pour sauver au moins la culture française**". Cela voudrait dire quoi ? Otoi ! Horretarako behintzat, **ez**.

Jordi Carbonell abertzale "historikoa"rekin luzaz mintzatzeko aukera izan dut : Pradan egin diote gorazarre orokorra egun horietan. Josep Guia-ren inguruan, bestalde, eta U.C.E.tik at, baina Pradan, beste talde abertzale berri bat sortu da : "Catalunya Lliure" ; klase-izaria eta nazio-izaria uztartu nahiz.

Katalandarrak zatiturik daude, ez dago zalantzarik. Baina Kataluna bizirik dago ; eta hango abertzaletasunaren heriotzaren zai daudenek, luzaz beharko dute itxaron. Pujol-ez gain ere, bihotzean Catalunya Askatua daraman askok eta askok ez baitu batere etsi.

## IEGA
## Iparraldeko Euskal Gazte Abertzaleak

■ Nous sommes un groupe de jeunes d'Iparralde - IEGA - qui, face à la désinformation et l'intoxication, ressent la nécessité de créer un groupe pour contrecarrer l'incohérence suscitée par la situation politique actuelle en Euskadi qui se répercute de même dans la jeunesse d'Iparralde.

Parce que nous voulons que cette situation change, nous avons créé IEGA qui se revendique comme groupe nationaliste révolutionnaire. Le groupe base son existence et son action sur les fondements du marxisme et de l'internationale ouvrière et travaillera à la construction du socialisme.

Notre groupe aura une démarche de solidarité militante avec les peuples qui luttent pour leur libération nationale et l'édification du socialisme. Nous faisons nôtre la revendication de l'Alternative tactique de KAS (Coordination Abertzale Socialiste)* et par conséquent IEGA reconnaît l'organisation de jeunes du bloc KAS - JARRAI - en tant qu'avant-garde politique de la jeunesse du Mouvement de Libération Nationale Basque. Nous considérons comme notre principal devoir de conscientiser la jeunesse d'Iparralde, sur la base de l'Alternative tactique de KAS dont l'obtention est indispensable à notre lutte afin de progresser sur la voie de la création d'un futur Etat socialiste basque, indépendant, réunifié et euskaldun. Notre champ d'action s'étend aux trois provinces du Pays Basque nord, Labourd, Basse-Navarre et Soule, colonisées par l'Etat français.

Notre axe de lutte : l'Alternative KAS ! Nos buts : l'indépendance et le socialisme.

**Pour tout contact**, s'adresser au "Bil Txoko", 8, rue Marsan à Bayonne

IEGA

** Les 5 points de l'Alternative KAS : Amnistie - Libertés démocratiques - Retrait de la Guardia civil, etc. d'hegoalde - Amélioration des conditions de vie et travail des secteurs populaires - Statut national d'autonomie sous sept conditions dont reconnaissance des liens nationaux entre iparralde et hegoalde.*

■ AJIR appelle à une manifestation, samedi 2 septembre, à la place Louis XIV à St-Jean-de-Luz (ville où vivait Pantxo Angevin). Cette manifestation sera précédée d'une marche symbolique qui partira de la place de l'église à Urrugne (village natal de Ttotte Etxebeste) à 16 h précises. Le thème de cette manifestation sera "Errepresioa Aski". Par quelques libérations (provisoires) faites au compte-gouttes et de la manière la plus arbitraire, le PS veut se donner un visage plus conciliant. En fait il ne fait qu'utiliser les prisonniers basques comme otages pour mieux servir sa politique ici, ou encore comme monnaie d'échange avec l'Etat espagnol (le cynisme absolu de l'affaire du TGV espagnol ou encore les extraditions qui entourent les voyages de Mitterrand à Madrid sont là pour le montrer). les cas de Ttotte et Pantxoa sont là pour illustrer cruellement le vrai visage du PS. (...) Notre combat vise le retour de Ttotte en Iparralde et la libération sans condition de tous les prisonniers politiques basques(...). Tel doit être le sens de la participation de tous et toutes à la marche et/ou à la manif du 2 septembre prochain